

ZMA

ZORROTZA MORROTZ • Zorrotza herriak • 95 alea • 2025eko iraila

MARINA DE LA FUENTE

Forró dantzako irakaslea

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com



**!Kasi
MiKasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



EUSKO FORUAK

Pinadila etxaldean, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 46 75
● zuzendaria@zazpilandeskola.eus



EUSKO FORUAK

Ikastalde etxaldean, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
● 014159aa@hezkuntza.net



EUSKO FORUAK

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
● 94 439 97 41
● 015078aa@hezkuntza.net
www.leszorrotzabhi.hezkuntza.net



**GORA
BIHOTZAK!**

**ZORROTZA^{ko}
jaiak 2025**

**urriak 4 larunbata
12:30ean. Azoka plazan**

eidebe



**Bizi garen artean
Gora Bihotzak!**



Antolatzaileak:




Laguntzaileak:


Babeslea:




ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

95. alea. 2025eko iraila

www.zorrotzmorrotz.eus
zm@zorrotzmorrotz.eus
@ZorrotzMorrotz
@zorrotzmorrotz
@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratxe Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Alaitz Aldabaldeireku

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Bilbao Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

sarrera

Ikasturte berriari ekiteko prest!

Ikasturte berri bat hasiko dugu, energia berrituekin, Zorrotzaren alde lanean jarraitzeko, hori baita gure izateko arrazoia. Beti bezala, helburu horiek lor ditzagun, zuen laguntza eta parte hartzea espero dugu.

Dakizuenez, auzoarentzat estrategikoak diren bi gai garrantzitsu ditugu mahai gainean: FEVEko trenbi-dearen lurperatzea eta Sader-Profersaren lekualdatzea. Kezkatzen gaituzten gai garrantzitsu batzuk ere badaude, Euskal Erroten birgaitzea, aparkaleku eza, Osakidetzaaren egoera, bizikidetzarekin lotutako gaiak, besteak beste, eta konpontzen joan behar diren beste gaie batzuen zerrenda luzea. Horietan geunden, gaude eta egongo gara.

Azken hilabeteotan behin eta berriz erretzen ari diren edukiontziek kezkatzen gaituzte. Gertaera hauek, ondasun materialen suntsiketaz gain, pertsonak

arriskuan jartzen dituzte, noizbait gertatu izan den bezala. Horrelakorik berriro ez gertatzeko, zaintza neurriak zorroztea eskatzen dugu.

Bestalde, auzoko jaiak ospatuko ditugu laster, eta Jai Batzordeak prestatu dituen ekitaldietan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Urtero bezala, programa bikaina izango da guztiontzat, heldu zein txikientzat, eta espero eta desio dugu jarrera matxista, sexista, arrazista, xenofobo edota esanahi negatibo duenak jaietan lekurik ez izatea.

Bukatzeko, ezin dugu eta ez dugu ahaztu behar Gazan eta Palestina osoan gertatzen ari dena. Horregatik, duela egun batzuk elkarretaratze bat egin zen Israelgo Estatuak herri palestinarren aurka egiten ari den genozidioa salatzeke. Argi eta garbi diogu: **GENOZIDIOA GELDITU ORAIN!!!**



cafe**txinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

VIA gráfica

• diseinu grafikoa
viagraficazorrotza@gmail.com

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAJ JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



Zorrotzarrok prest aukera ugariz betetako jai egitarauaz goatzeko

Aurten 20 urte bete dituen Txinbotarrak konpartsak izango du jaiiei hasiera emango dion txupinazoa botatzeko ardura. Guztira bederatzi egun izango dira, auzokide guztiek, gazteenetatik zaharrenetaraino, goatzeko jardueraz beteta.

AITOR MARIN

Irailaren 26tik aurrera jaietan murgilduko gara berriro zorrotzarrok. Musikaz, antzerkiaz, kirolaz, eta ondo pasatzeko aukera ugariz betetako bederatzi gau eta eguneko programaz disfrutatzen aukera izango dugu aurten ere: txosnak, kontzertuak, lehiaketa gastronomikoak, tailerrak, etab. ez dira falta-ko Azoka parkeko esparruaren barruan zein kanpoan.

Adin guztientzako jarduerak prestatzen ahalegindu da berriro Jai Batzordea. Gazteentzako eta umeentzako eskaintza zabala osatu dute (kuadrillen lehiaketa barne), baita nagusientzat ere, 60 urtetik gorakoei espresuki zuzendutako ekintzak izango baitira laugarren urtez. Guztion parte hartzea eska-

tzeaz gain, jaiak posible egiten dituzten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkie Jai Batzordeak. “Boluntarioen ahalegin nekaezinari esker itzuliko dira jaiak: Aste Nagusiko sukaldean lan egiten dutenei esker zein jaietatik haratago auzoari bizia ematen dioten taberna eta saltokiei esker”.

Musikari dagokionez, Kresala (ostiralean) eta Versus (larunbatean) taldeek berriro errepikatuko dute Azoka parkeko eszenatokian lehenengo asteburuan. Bigarren asteburuan berriz, Trikižio erromeria eta XSakara eta Bad Sound taldeak arituko dira eszenatokian.

Euskara bultzatzeko ekintzak

Aurten jada urteroko hitzordu handia bihurtu den jaietako lehenengo igandeko bertso saio handia babestuko du Zorrotzako Euskal Txokoak. Irailaren 29an eguerdiko 12etan, Amets Arzallus, Jone Uria, Saioa Alkaiza eta Jon Maia bertsolari handiak taularatuko dira Azoka plazako kioskora. Horretaz gain, Askabide Kultur elkarteak babestuta, urriaren 3an Tor Magoarekin poteoa antolatuta dago 19:30etik aurrera. Bukatzeko, txikienek dantzatzeko eta abesteko aukera izango dute Euskal Txokoak babesten duen Gora bihurtzaken “Azken taupadak!” ikuskizun musikalean, urriaren 4an larunbatean, eguerdiko 12:30ean Azoka plazan.



Israel Palestinan egiten ari den genozidioa salatu zuen elkarretaratze batek

ZORROTZ MORROTZ

Ehun lagun baino gehiagok parte hartu zuten irailaren 5ean kontzentrazio zaratzatu batean Gazako genozidioa salatzeko. Palestinarekin elkartasuna eta Israelekiko harre-

manak eteteko eskatu zuten pankartaren atzean bildu ziren Fray Juan kalera inguratu ziren lagunek. Elkarretaratze hau Euskal Herriko hainbat hiri eta herritan egun eta ordu berean egindako beste bat izan zen, Gernika Palestina plataformak deituta. 20 eragile politiko, sozial eta sindikal baino gehiagok bat egin zuten deialdiarekin, Israel "munduaren begien aurrean egiten ari den ankerkeria" ezin dela gehiago luzatu ozen eskatzeko.

Zorrotzan zigilatutako Lotería Primitivako txartel batek 1,3 milioi euroko saria irabazi du

ZORROTZ MORROTZ

Bizilagun batek zortea bere alde izan zuen pasa den uztailaren 24an. Zorrotza Kastrexana kaleko 2. zenbakiko 29. loteria-administrazioan zigilatutako txartel batek 1,3 milioi euroko

lehen mailako saria jaso zuen. Hain zuzen ere, lokal horretan saldu zen errege eguneko zozketako lehen sariaren zati bat 2021ean, eta egun batzuk geroago, administrazioko arduradunak elkarriketatu genituen ZMko 67. zenbakian.

1^{urte}

ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
 auzoarekin eta
 euskararen alde!*

STAZ
OKINDEGIAK
**Zorrotzako
 labea**
 Zugandik gertu
 Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
 Tfno. 94 441 09 71
 Zorrotza - 48013 BILBO

Jai-Alai
 kafetegia

 Abaro estrata, 12
 94 490 12 59

MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estrata, 5 - atzea
 ZORROTZA
 48013 BILBO

MADNES
 Tel. 94 441 62 75



Landa parke berria inauguratu dute

ZORROTZ MORROTZ

Pasa den uztailaren 10ean, Zorrotzako Murturrean, Arsenalbidean, Renfe Aldiriko trenbidea eta itsasadarraren artean definitutako espazioan dagoen “Landa” parke berria inauguratu zuen Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, korporazioko beste kide batzuekin batera. Guztira 11.022 metro koadro dauzka parkeak, eta berdeguneak, egoteko guneak, jolaserako guneak eta kirol-guneak ditu. Udalak 2 milioi eta seiehun mila euro baino

gehiago inbertitu ditu hamar hilabete gutxi gorabehera luzatu diren lanetan.

Nautikan girotutako jolasgune bi jarri dira haurrentzat, parkea itsasadarretik eta kaitik gertu dagoela kontuan hartuta. Lehenengoa, hiru urte arteko haurrentzat; bigarrena, hiru eta hamabi urte bitartekoentzat. Eredu biek jolas inklusiboak, irisgarriak eta egokituak dauzkate. Halaber, kirol-eremu bi sortu dira: parkour motako kirol-eremua, hainbat for-



Edukiontzietan nahita piztutako hainbat sutek kalteak eragin dituzte fatxadetan eta ibilgailuetan

ZORROTZ MORROTZ

Udan, nahita piztutako suteak izan dira Zorrotzako hainbat zaborrontzietan, eta kalteak eragin dituzte zenbait fatxada eta ibilgailutan. Halaber, etxean lotan zeuden pertsona batzuk artatu behar izan dituzte ospitalean, kea arnasteagatik. Eragindako sute horiek auzoko hainbat lekutan gertatu dira, beti goizaldean eta asteburuetan. Argitalpen hau ixteko unea, ez da atxiloturik egon.



matako blokeekin, ad hoc diseinatutako zirkuitua sortuz; eta kalistenia-eremua, hainbat barra-multzorekin.

Parke berriak, gainera, 2.800 metro koadro belardi eta zuhaixka-eremu dauzka. Bertan 64 zuhaitz berri landatuko dira (lizarrak, haltzak, urkiak eta altzifreak). Proiektutako horietatik 46 landatu dira, eta udazkenean landatuko dira gainerakoak.

Halaber, aurreko fasean egindako bidegorriri jarraipena eman zaio, lehenik trenbideen ondoan, eta kaian zehar ondoren. Horretaz gain, inguruan ibilgailuak aparkatzeko bi gune sortu dira, 63 plazarekin. Hasierako proiektuan, Sader enpresako kamioiak aparkatzeko lekua aurreikusten bazen ere, azkenean, eremu hori erabilera publikorako bideratu da.



Hasieratik kritikak eragin dituen proiektua

Landa parkearen proiektuak auzokideen kritikak eragin zituen obren lizitazioa onartu zenetik. Auzo Elkarte oso kritiko agertu zen proiektuarekin, ekarpenik jasotzeko aukerarik ez zelako egon. Gainera, aparkalekurik eza auzokiden arteko kexa nagusienetakoa izanda, Jabonerako orube zeneko aparkaleku guztiak kendu ziren.

Auzokide batzuk kexu agertu dira, landutako zuhaitzak oso txikiak direlako eta egun eguzkitsuetan ez dagoelako itzal-eremurik. Baina batez ere, bizilagunen artean ezinegon handiena sortzen duena da ekipamendu publiko berri hori Sader eta Profersa lantegien ondoan dagoela; horren ondorioz, egun askotan ezinezkoa baita instalazioez gozatzea, enpresa horiek sortzen dituzten isurketek eragindako usain txarreatik. Hainbat herri-tarrek parkea inauguratzera etorri zen alkaterean bisita baliatu zuten banderolekin eta karteekin enpresa kutsatzaile horien lekualdaketa berriro eskatzeko, bitan banatu behar izan zuten kontzentrazio batean. Izan ere, Ertzaintzak isunak jartzeko mehatxua egin zuen, elkarretaratze hura jakinarazita ez zegoelako eta baimenik gabe kontzentratu daitekeen pertsonen kopurua gainditu zutelako.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

// Hemen benetako independentzia izateko aukera izan dut //

LEIRE PEÑA AGIRRE

Bizitokia: Dublin, (Irlanda)

Noiztik: 2024ko apiriletik

Adina: 26 urte

Lanbidea: Haur hezitzailea.

Lanean egonkortasun eskasak behartuta, aukera gehiagoren bila lan eskaintza baten bitartez heldu zen Leire Dublinera. Bertan jende eta inguru jatorra topatuta eroso dagoen arren, argi dauka Irlandako etapa hau bukatzen denean, gurera bueltatuko dela, auzoa eta Euskal Herria bihotzean daramatzalako

TESTUA: NARROA PEÑA

Nolatan heldu zinen hara bizitzera?

Auzoan aldi baterako lanetan eta egonkortasun eskasarekin lanean egonda eta hezitzaileon lan egoera dela eta, nire burua internazionalki aukera gehiagotara irekitzea erabaki nuen. Gainera, nire erosotasun-eremutik irteteko momentua zela sentitzen nuen, baita ingelesa hobetzeko aukera ona zela ere... Finlandiako eta Alemaniako haurtzaindegia pare batekin ere harremanetan ibili nintzen; baina, azkenean, Irlandako lan eskaintza hartzea eta hona etortzea erabaki nuen.

Nolakoa da zure lana?

Nabilen 'haurtzaindegian' (hemen 'creche' deitzen dira) 1 eta 5 urte bitarteko haurrak ditugu, 8 taldetan banatuta. Oraintxe bertan, 2-3 urte bitarteko haurrekin nabil lanean, nire gela finkoa dut eta bertan 12 haur ditugu Pablok eta biok. Espainiar estatuaren aldean, Irlandako ratioa askoz txikiagoa da; nire adinekoekin, adibidez, 6 haur irakaslekoa da. Horrek haur bakoitzari behar duen arreta eskaintzea erabat errazten du, baita lana behar bezala egitea eta gozatzea ere.

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zizaitzaizun?

Ba, egia esan, uste nuen baino askoz gutxiago kostatu zitzaidan. Egia da hasiera batean, lehenengo asteetan nire burua konatzea eta bertako bizimodura moldatzea erronka izan zela, atzerrian eta nire familia eta lagunengandik urrun bizi nintzen lehen aldia baitzen. Hala ere, zorionez, bai lanean bai sozialki jende eta inguru jatorra aurkitu nuen Dublinen, eta orain erabat eroso nago hemen.

Oso ezberdinak dira hango bizimodua eta Zorrotzan zeneukana?

Aitortu behar dut Dublin espainiarrez beteta dagoela eta nire lagunak espainiarrak direla batez ere; beraz, aldaketa badago ere, ez da hainbesterako. Hala ere, hemen benetako independentzia izateko aukera izan dut, baita aurrezteko eta pertsonalki zein laboralki nire burua garatzeko baliagarria izan zait. Gainera, baloratua eta eroso sentitzen naiz hemen lanean eta Dublinen aisialdian plan ezberdinak egiteko eskaintza handiagoa dela sentitzen dut.

“Dublinek nire erosotasun-eremutik ateratzeko oso aukera eroso eman dit

Auzora askotan bueltatzen zara?

Ahal dudan bakoitzean bisitan bueltatzen saiatzen naiz, baina nahiko nukeena baino gutxiago. Opor gutxi dut hemen eta bidaia-txoren bat egiteko ere erabili dut aisialdi hori.

Zeren falta botatzen duzu gehien?

Gezurra esango nuke pintxorik, poteorik, kalimotxorik edo ondo egindako izotzdun kaferik gabe bizitzera ohitzeak bere zailtasunak izan dituela esango ez banu... Hala ere, hemengo gastronomiak ez du hango janariaren inbidiarik. Hala ere, zalantzarik gabe, familia eta lagunak ditut faltan gehien.

Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Esango nuke hemen aukera asko daudela, bai lan arloan, bai sozialki. Ez dakit... Hemen giroa desberdina da, beti dago plan ezberdinak egiteko aukera eta jendea. Bilatzen baduzu, noski. Natura eta paisaia asko ere badago esploratzeko, eta hainbat kirol probatzeko aukera ere aurkitu dut. Esan nezake erosotasun-eremutik oso modu erosoan irteteko aukera eskaintzen duela Dublinek, nire esperientziatik, noski.

Bestalde, egia da eguraldia ez dela onena, euria eta zeru lainotsuak nekagarriak izan daitezke eta; baina Bilbon ere antzekoa zen, eta gehiegizko beroa baino nahiago dut klima hau. Hala ere, hemen uste dut euritarako askoz gutxiago prestatuta daudela, azpiegiturari dagokionez, ez dago aterperik ia inon.

Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Bai noski!! Irlandan bizitzeari denboraldi baterako deritzot. Egia da hasiera batean pentsatzen nuen baino gehiago luzatzen ari zaidala hau, baina auzora bueltatzeko asmoa buruan daukat beti eta bueltatuko



naizela argi daukat; auzoa eta Euskal Herria bihotzean daramatzat eta familia eta kua-drila bertan ditut. Hala ere, momentuz ez daukat presa handirik eta esperientzia hau topera bizi nahi dut. Beraz, etapa bukatu dela sentitzen dudanean, Euskal Herrira bueltatuko naiz.

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

B
BiziFitness

CROSS TRAINING
eta
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
gustiontzat

Zure zain gaude!

ZALBIDEA 1070114, 12 625104551



Hogei urte hegoak astintzen

Hogei urte igaro dira jada
Txinbotarrak sortu zenetik. Bilboko
 Konpartsen artean beterranoa
 ez den arren, ekinaren ekinez
 bere lekua egitea lortu du, eta
 gure auzoko erreferentzia ere
 bihurtu da. Aurten, Zorrotzako
 jailetako pregoia emango dute
 eta egindako bidea gomutatzeko
 argazki-erakusketa jarriko dute
 Auzoka Komunitate Zentroan.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ

ARGAZKIAK: TXINBOTARRAK KONPARTSA

Oso urrun geratzen da 2005. urtea, baina merezi du gogora ekartzea nolakoa zen giroa Zorrotzan gure konpartsa sortu zenean. Gaztetxearen okupazioa (2004) une gogoangarria izan zen orduko gazteentzat, duda barik.

Horrez gain, beste erronka batek auzoko eragile guztiak bateratu zituen: Azoka Parkearen defentsa, alegia. Bilboko Udalak lurpeko aparkaleku bat eraikitzeko asmoa zuen frontoia-
 ren aurrean bertan, eta horretarako, plaza zati hori suntsituko zuten. Zorionez, auzotarrok egindako presioagatik, aparkaleku frontoiaz haratago eraiki zen eta gaineko lurzorua urbanizatu. Horrekin batera, egungo saskibaloi eta futbito kantzak irabazi genituen.

Bizikidetzaz arazoak ziklikoak izan dira gure auzoan, baina urte horietan egoera bereziki latza zegoen Zazpilanda etxaldean. Udalaren eskuhartzerik eza salatze, manifestazio erraldoi baten ostean auzokide batzuek Auzo Etxea okupatu zuten eta gau osoa bertan eman zuten protesta gisa. Inflexio-puntu horren ondoren, egoera aldatzen hasi zen.

Borroka horiek guztiek mugimendu desberdinetako kideek, haien artean gazte askok, elkar ezagutzea eta euren artean harremanak estutzea ekarri zuen. Eta, horrekin batera, bestelako Zorrotza bat lortzeko ametsa ere bai.

Txinbotarraken sorrera

Auzoko konpartsa bat osatzeko ideia beti egon zen presente, baina 2005. urtera arte ez zen seriozki hartu. Orduan, Jai Batzordearen inguruan militatzen zuten ero gutxi batzuk bildu egin ziren hori nola egin zitekeen aztertzeko. Aste gutxiren buruan, izena emateko orriak banatu zituzten inguruko elkarte eta lagunen sarean eta, euren harridurarako, ehundik gora lagunak egin zuten bat ekime-narekin.

Abendu horretan bertan fundazio batzarra egin zuten eta otsailerako Bilboko Inauterietan parte hartu zuten handik eta hemendik lortutako materialekin. Lehenengo karroza Gaztetxean eraiki zuten eta “Jurassic Parking” zuen izena: dinosauro-garabi bat irudikatzen zuen, Azoka Parkea irentsi nahi zuena. 2006an zehar jarduerak guztietan parte hartu ondoren, Txinbotarrak Bilboko Konpartsen Federazioan onartua izan zen.

Gaur gaurkoz, erronkarik nagusiena ahaleginari eustea eta belaunaldi berriak erakartzea da

Mugarriak eta erronkak

“Hogei urte ez da ezer” zioen tango zahar batek; baina ondo begiratuta, bi hamarkada hauetan Txinbotarrak konpartsak kapitulu esanguratsu asko idatzita utzi ditu historiarako. Hasteko, 2007an lehen txosna jarri zuten. Aurrenekoaz, Zorrotza eta bere aldarrikapenak Bilboko Areatzaraino iritsi ziren. Gutxi geroago, 2010ean, txupinera jartzea egokitu zitzaizenean, Aratz Irazabal “Pira” izan zen Aste Nagusiari hasiera eta amaiera emateko arduraduna. Ondoren, 2014an, Aratusteetako desfilearen lehen saria lortu zuten. Pandemiako etenalditik indarberrituta ateratzea ere ez zen nolanahiko lana izan, auzo gehienetan gizarte-mugimenduak moteldu baitziren. Eta iaz, txupinera berriro jartzeko ohorea izan zuten, Nagore Ugarteren eskutik. Momentu horiek eta gehiago gogoratzeko, argazki-erakusketa bat jarriko dute Auzoka Komunitate zentroan, urritik abendura bitarte.

Baina kamerako fokutik at bada lan ikusezin bat, isilpean, jende askoren ahaleginez egiten dena, urte osoan zehar Zorrotzan eta Bilbon jai eta kultura herrikoiak sustatzeko. Beraiei esker, izugarri aberastu da auzoko kultur egitaraua azken urteotan eta proiektu interesgarriak jaio dira, hala nola, musika tailerrak.

Horixe da, gaur-gaurkoz, konpartsaren erronka nagusia: ahaleginari eustea eta belaunaldi berriak erakartzea, hegoak astintzen jarraitzeko hauspoa eman diezaioten. Zorionez, aurpegi gazte berriak ikusten hasi dira, eta jaien hasieran emango duten pregoian merezi duten lekua izango dute.

Urte askotarako, Txinbotarrak!



MARINA DE LA FUENTE: *Forró dantzako irakaslea*

“Hemen ezezaguna zenez, forró dantzatzeko jarraitzeko klaseak antolatzen hasi nintzen”

Alemanian bizi zen bitartean, *forró* dantza eta musikarekin nahigabe maiteminduz zen Marina saltsa klaseak hartu nahi zituenean. Bilbora itzultzean, hemen dantza hau inork ez zuela ezagutzen ikusi zuen, eta dantzatzeko jarraitu nahi bazuen saioak berak antolatu beharko zituela konturatu zen. Esan eta egin: egun *Forró Bilbaoko* irakaslea izatea eta automobilgintzan programatzaile ogibidea bateratzen ditu. *Forró* munduan gehiago sakontzeko asmoz, eta jaietan egingo duen tailerra eta kontzertua aitzakiatzat hartuta, berarekin solasaldian egon gara.

TESTUA: AITOR MARIN | ARGAZKIAK: MARINA DE LA FUENTE

Lehenik eta behin, *forró* dantza zer den eta nondik datorren jakin nahiko nuke...

*Forró*a dantza bat baino gehiago da, Brasiigo ipar-ekialdeko musika tradizionala da. Musika horren inguruan hainbat festa antolatzen dira eskualde horietan eta bikoteka dantzatzan da. 50eko eta 60ko hamarkadetan *forró*-a Brasil osoan zabaldutako zen Luiz Gonzaga eta beste musikari garrantzitsuen batzuei esker eta hego-ekialdeko hiri handietan dantza gero eta sofistikazio gehiago hartu zuen beste bikote-dantzen eraginagatik. Azkenengo urteetan, atzerrian dauden brasildarrak *forró*a irakasten hasi dira beste herrialdeetako batzuetan.

Nola piztu zen zure interesa *forró* dantza-erikiko?

Alemanian bizi izan naiz 2012tik 2022ra eta han ikusi nuen lehenengo aldiz. Brasiletik kanpoko lehenengo *forró* eskoletako batzuk Alemanian sortu ziren eta, horregatik, han

hemen baino askoz zabalduago dago gaur egun. 2017an saltsa klaseen bila nengiln eta nahi gabe *forró* klase ireki batean agertu nintzen. Hasieran ez zitzaidan berezikinteresatu eta saltsa ikasteko planarekin jarraitu nuen. Urte erdi bat geroago, bikote-dantzan ezagutza gehiago nituela jada, berriz, *forró* festa batera joan nintzen eta *forró*arekin maitemindutako nintzen.

***Forró*-klaseak emateaz gain, beste zerbaitetan aritzen zara, ezta?**

Bai, *forró*a nire zaletasuna da, baina nik ingeniaria ikasi nuen eta programatzaile lanetan aritzen naiz auto industrian. Horretaz aparte psikologia gradua amaitzen ari naiz unibertsitate online batean.

Zaletasun oso handia. Izan ere, *Forró Bilbaoko* irakaslea zara... Zergatik erabaki zenuen *forró* irakasle izatea?

Alemanian *forró*a astero dantzatzeko nuen. Bilbora itzultzean konturatu nintzen hemen



“Alemanian klaseak hartu ondoren, oso gogotsu ibili naiz European antolatzen diren *forró* jaialdietan

“Bilbon osatzen ari garen *forró* komunitatea 50 bat pertsonaz osatua da

inork ez zuela dantza hau ezagutzen eta dantzatzen jarraitu nahi banuen nik klaseak antolatu beharko nituela. Eta horri ekin nion.

Nortzuk izan ziren zure maisu-maistrak?

Egia esan, hasieran ez nuen *forró* klase askorik jaso... Saltsa, bachata eta kizombako klaseetara joaten nintzen eta horrek bikote-dantzarekin konfiantza apur bat eman zidan. Orduan, *forró* festetara joaten hasi nintzen astean behin eta bertako jendearekin dantzatzu ikasi nuen. Geroago, Bilbora bueltatu baino lehen, klaseak hartzea erabaki nuen, nire dantza hobetzeko asmoz, eta hiru hilabetez ikasten eman nituen *Forró Haus* dantza eskolan Stuttgarten. Horren ostean, oso gogotsu ibili naiz European antolatzen diren *forró* jaialdietan. Horrelakoetan, munduko irakaslerik ospetsuenak biltzen dituzte dantza tailerrak emateko eta haiekin klase partikularrak ere jaso izan ditut. Horien artean, nire gogokoenetarikoak Camila Alves eta Yse Góes izan dira.



Non ematen dituzu eskolak?

Orain arte *Galeón* pubean eman ditut klaseak, Mazarredo kalean, baina hurrengo ikasturterako lekua aldatuko dugu eta bi dantza eskolatan irakasten hasiko naiz: Ostiraletan *La Tribu Dantza* espazioan (San Frantziskon) eta ostegunetan *Inicia dantza* eskolan (Indautxun).

Elkarrizketa honetarako dokumentazio lantetan ibili ondoren, badirudi *forró*a modan dagoen dantza bat dela eta gero eta jarraitzaile gehiago dituela. Hala dela uste duzu? Duela 30 urte *forró*a Brasilen baino ez zen ezaguna. Gaur egun, pixkanaka, handik kanpo zabaltzen ari da. Gero eta jarraitzaile

gehiago ditu, bai, baina leku gehienetan komunitate txikiak dira, gurean bezala.

Zenbat ikasle dituzu?

Egia esan, ikasle gutxi ditut oraindik... Pasa den ikasturtean 5 ikasle baino ez. Hala ere, *forró* komunitatea Bilbon 50 pertsona inguruk osatzen dugu. Batzuek ez dute denborarik klaseetara etortzeko eta bakarrik tailer bat edo besten parte hartzen dute ahal dutenean. Beste batzuk bazekiten dantzatzeko Bilbora etorri baino lehen, brasildarrak direlako edo beste hiri batean ikasi zutelako. Eta hori ere bada erakitzen ari garena, gure *forró* komunitatea. Klaseez aparte, dantza ekitaldiak antolatzen ditugu eta bertan elkartzen gara batera dantzatzeko.

Bateragarria da adin guztiekin? Ba al dago maila desberdinik?

Ikasle gutxi izateagatik, oraindik ez da maila desberdinik eskaintzen. Ikasle guztiak batera daude, baina oso ondo funtzionatzen ari da formatu hau. Eskarmentu handiagoa dutenek ikasle berriei laguntzen diete, eta horri esker, etorri berriak azkarrago integratzen dira. Oso adin desberdinetako pertsonak ikusten dira *forró* dantzatzeko. 20 urtetik 70raino...

Beharrezkoa al da aurretik dantza egiten jakitea zure klasetara joatera animatzeko?

Ez da beharrezkoa dantzan esperientzia izatea nire klaseetara etortzeko, oso erraza delako hastera. Hori da alderdi interesgarrienetarikoa bat. Normalean, klase bakar batekin bada posible abesti osoak dantzatzeko hastera.

Zure ustez, zer balio transmititzen ditu *forró*ak?

Batez ere, errespetua sustatzen du. Alde batetik, bikotekidearengandik oso gertu dantzatzeko; eta, bestetik, bikote-dantzetan ohikoa den bezala, oso normala da *forró* festetan ezezagunak diren pertsonak aurkitzea eta dantzatzera gonbidatzea. Horregatik, oso garrantzitsua da parte hartzaileei arau batzuk jakinaraztea. Oso argi uzten da gure espazioetan ez dela onartzen edozein motatako diskriminaziorik edo erasorik. Gainera, an gero eta gehiago ikuspegi feminista erakitzen ari da. Hasieran, oso positiboki harritu

// **Bikote-dantzak gustatzen zaizkit, baina rocka edota flamenkoa ere maite ditut** //

Forróaz gain, zer beste musika mota gozatzen duzu dantzatzeko?

Beste bikote-dantza batzuk gustatzen zaizkit. Adibidez saltsa, bachata, merengue... Rock musika edota flamenkoa ere maite ditut.

Aholkuren bat forróan hasi nahi duenarentzat?

Beldurrik ez izatea eta probatzera etortzea. Oso giro erosoa dugu eta ez da beharrezkoa bikote batekin etortzea, ezta dantzatzen jakitea ere. Edonork ikasi dezake; pertsona batzuek beste batzuek baino denbora gehiago behar izango dute ikasteko, baina azkenean gogoia duenak ikasi ahal izango du.

Ba al dago dantza egin ahal izateak ilusio berezia egingo lizukeen eszenatokirik?

Gure ekitaldien helburua gure artean dantzatzeko espazioa eskaintzea da.

Ez gaude eszenatoki baten bila, ez dugulako emanaldirik ematen. Behar dugun bakarra espazio handia eta zoru leuna da.



ninduen bi gizon elkarrekin dantzatzen ikus-teak. Normalean, bikote dantzetan gizonak gidatzen du eta emakumeak jarraitu behar dio... *Forróan*, gaur egun, edonork gidatu edo jarraitu dezake eta emakumeek elkarrekin dantzatu dezakete.

Aste Nagusian hainbat erakustaldi antolatu dituzue *Forró Bilbaon*... Nola joan dira?

Bai, txosnetan tailer bat egin genuen, eta horren ostean, ikasitakoa praktikan ipini genuen. Publiko gehienarentzat ezezaguna izan arren, partaide nahikotxo etorri ziren, eta inguruan zebilen jende asko hurbildu zen zertan ari ginen galdetzeraz. Beraz, oso positiboa izan da bertan parte hartzea.

Jaietako lehen igandean tailer bat egingo duzula jakin dugu. Horretaz gain, *forró* kontzertu bat ere egongo da. Zer ikusi ahal izango dugu? Aurreratuko diguzu zerbait?

Hasieran azaldu bezala, *forróa* dantza izateaz gain, musika eta festa ere bada, eta oso ohikoa da musika zuzenean izatea *forró* ekitaldietan. Klaseak ematen hasi nintzenean

zorte handia izan nuen hemen, Euskal Herrian, *forró* jotzeko nahia zuten brasildar musikariak aurkitu bainituen. Iaz hainbat ekitaldi antolatu genituen batera eta Zorrotzako jaietan gauza bera egingo dugu: dantza tailer batekin hasiko gara, interes duen jende guztiak kontzertuan dantzatzeko prestatu ahal izateko. Tailerraren ostean, *Forró Goxua* taldeak bere musika joko du, beraz, giroa bermatuta izango dugu.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



AGENDA

Irailak 26 - Urriak 5

ZORROTZAKO JAIK 2025:

Egitarau osoa topa dezakezu Jai Batzordeko sare sozialetako profiletan

Irailak 28, igandea

21:30. Azoka plazan.

Bertso saioa:

AMETS ARZALLUS, JONE URIA, SAIOA ALKAIZA eta JON MAIA.

Urriak 3, ostirala

19:30. Azoka plazatik.

Magia poteoa: TOR MAGOA.

Urriak 4, larunbata

12:30. Azoka plazan.

Umeentzako ikuskizuna:

GORA BIHOTZAK.

Irailak 28, igandea

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: FABIO LIONE

Sarrera: 33 € + gastuak

Urriak 10, ostirala

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: SANGRE DE MUÉRDAGO

+ MALABRIGO. Sarrera: 16 €

Urriak 16, osteguna

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: VAMPIRE HOTEL +

SAHON + EMBLODIMENT.

Urriak 26, igandea

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: MOSCOW DEATH

BRIGADE. Sarrera: 18 €

Urriak 30, osteguna

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: ELDER. Sarrera: 22 €

Azaroak 8, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: AVALANCH + ARGION.

Azaroak 15, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.

Kontzertua: MIDJUNGARDS.

Sarrera librea

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, zm@zorrotzmorrotz.eus helbidera idatzi.



Hetero

Uxue Alberdi Estibaritz.

Susa. 2024. 160 orrialde.



Araua eta arrakala. Bien arteko tentsioan ageri zaizkigu ipuin hauetako protagonistak. Emakumezkoak dira ia denak, eta gizonez ari dira, nagusiki. Haiek euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez. Gizonekiko espektatibez eta dezepzioez: unean bertan egin eta esan ez ziren horiez.

Aitak —odolekoak, kulturalak, politikoak—, maitaleak, adiskideak ageri dira kontakizunotan. Tesi zuzendari, editore eta militante “idealizatuak”; hiru laguneko gorputz bakar bat frenorik gabe aldapan behera; Zarautz, Elgoibar, Kuba —“desira aplastante bat”—; whatsapp bidezko literatura lezioak; ezin bete diren promesak urpean eta naufragatzen utzitako bizi-puskak; hiltzen jarraitzen duen aita bat, alargun igerilari bat...

Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu Uxue Alberdik bere hirugarren narrazio liburuan



HARTZ: “Pilula bi”

(2025)



Formatu digitalean argitaratu du “Pilula bi” lan berria Hartz talde azpeitiarrak. 2016an sortua, eta urteetan zehar izandako taldekide aldaketen ostean, indarberrituta itzuli da rock eta post-hardcorearen artean mugitzen den laukotea. Zazpi

abestiz osaturiko diska honetan melodia da nagusi, baina bateria eta baxu indartsuaren presentziak indar handia ematen die konposizioei, gitarra, ahotsa eta azpi-ahotsak alde batera utzi gabe.

Diska Zarautzen grabatu dute, Iñigo Azkue soinu teknikariak kudeatzen dituen Azken Soinua estudioetan. Masterizazioa, aldiz, Katalunia aldean egin dute, Ultramarinos Costa Baravan Victor Garciaren eskutik. Azalaren atzean Mikel Bida diseinatzailerak aurkituko dugu, eta bertan originaltasunak eta koloreen nahasketa deigarriak talka egiten dute.

Eskertzekoa da mota honetako proposamenak existitzea, hain aberasgarria den euskal eszenaren sasoi onaren seinale. Musikari eskaintzen diogun txoko honetan oraindik zeresana eman dezaketen taldeak erakusten jarraitzea dugu helburu eta, hau ikusita, badirudi luzerako izango dela.

IBAÍ BARRIOS



EUSKARA- IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

A1 - A2 - B1 - B2 - C1 ikastaroak

A1 - A2 eta C1 ikastaroak (16-18 urte): prezio bereziak

DIRULAGUNTZAK IBECAS

EUSKO JAURLARITZA

Maila egiaztatuz gero
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BILBOKO UDALA

Maila eta asistentzia egiaztatu behar da
Es necesario acreditar nivel y asistencia

Zorrotza AEK euskaltegia

Zalbidea 7, behea | 94 441 49 20 | zorrotza@aek.eus



Unbe (301m.)

MANU COBO

Goierrri eta Butroe haranetik hegoalde-
ra banatzen dauen gailur apala. Haran
hori Butroe ibaiak zeharkatzen dau, eta
Plentziako itsasadarrean itsasoratzen da,
meandro handi bet (Abaniko izenekoa)
deskribatu ondoren. Laukizetik gertu (51
m) Butroe gaztelu harrigarria dau, helbu-
ru turistikoetarako irekie gaur egun. Ipui-
netako gazteluak gogorarazten doskuen
eraikuntza honek Erdi Aroko jatorria dau,

baina gaur egun dauen egitura, oso ikusga-
rria, XIX. mendean zehar egindako izaera
erromantiko eta fantasiazko nabarmeneko
birmoldaketaren ondorio da. Francisco de
Cubas eta González-Montes arkitekto eta
markesak egindakoa XIX mendean.

Unbeko gaina (167 m), Munarrikolanda
(254 m) mendilerroa banatzen dau Unbe-
tik, mendilero hau Berangorarte jeisten da
eta Punta Galeraino heltzen da. Lepo hau
famatu bihurtu zan kristauen istorio ba-
tagatik (1941an Felisa Sistiagari agertu
jakon birjina, gero 68en sanpedro eta gero
69en...), iturri (putzu) bat hartu dabe be-
deinkatutzat edo, ta turismo asko erakar-
tzen dau leku askotatik.

Igotzeko, Akarlandatik (autobusez edo
Leioatik igota) errepidea pasa goiko zubi-
tiketa Karabezutik igoko gara, egin daben
etxetaldetik urbil. Loititik (autobusez edo
Sondiketetik trenez), Laurora igo ta Fabarra-
ga bidea hartute, GRa jarraitu gorarte. Egin
ahal da Sondiketetik joan ta Astrabuduara
jeitsi, goiz polit bet igarotzeko.



TXOKO FEMINISTA



Feminismoa askatasunaren eta berdintasunaren aldeko borroka da, eta bere helburuen artean, botere-harremanak eta generoaren eraikuntza soziala aldatzea daude. Horregatik, feminismoak ez da soilik emakumeen eskubideen defentsan oinarritzen, baizik eta gizartearen eraldaketa orokorrean.

Genero errol tradizionalak banakoen aukerak eta askatasuna baldintzatzen dituzte. Horregatik, feminismoaren garapenak ez du

soilik emakumeen bizitza hobetzen: berdintasunean oinarrituriko gizartearen, gizonek ere irabazten dute, beren emozioak, sentipenak eta bizitzeko moduak askatasunez adierazteko aukera zabaltzen zaielako. Eta orokorrean, bakoitzak bere generoa bizitzeko eta adierazteko modu guztiak errespetagarriak izatea lortu nahi du.

Guztiok gara borroka honen parte, eta guztion ardura da etorkizun inklusibo, bidezko eta parekide bat lortzea.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Irisgarritasun-arazoak kiroldegiko futbol-zelaietarako sarreran

Futbol-zelaietarako sarrera ez da egokia mugikortasun murriztua duten pertsonentzat edo haur-kotxeekin doazenentzat. Kiroldegiko sarrera nagusitik zelaiaren sarreraraino doan espaloia saihestu ezin diren eskaileretan amaitzen da. Aukera bakarra kiroldegiko aparkalekutik sartzea da; baina, horretarako, autoak ibiltzen diren gunetik pasatu behar da oinez, ez baitago espaloirik, ezta oinezkoentzako pasabiderik ere.



ehbildu

ETORKIZUNA DA ORAIN

Esperantzaren nazioa.



ASKABIDE ZORROTZA



irailak 26 ostirala

>23:00 **KRESALA**

irailak 27 larunbata

>23:00 **orquesta
VERSUS**

irailak 28 igandea

>19:00 **forró tailerra**

>20:00 **FORRÓ GOXUA**

urriak 3 ostirala

>23:00 **TRIKIZIO
erromeria**

urriak 4 larunbata

>23:00 **XSAKARA
BAD SOUND**

urriak 5 igandea

>17:00 **tardeoa: DJ ISMEDER**

Azoka plazako txosnagunean | Txosnagune de la plaza del Ferial

**Txosnak.
Gureak,
denonak.**



Txosnak Gureak
denonak
txosnak gureak
denonak

ZORROTZARA HELTZEKO:

 **Bilbobus**
 **Bizkaibus**

• 18 • 85 • 88
• A3115 • A3116
• A3132 • A3136
• A3137 • A3144
• A3136 • A3141
• A3142 • A3143



renfe

renfe
Renfe
Garaizeta
Garaizeta, 12. planta
Garaizeta

• C1 • C2: Zarretza

Zarretza - Zaragozoki

Garaizeta
Garaizeta, 12. planta



**ZORROTZAKO
JAIA**



ALIZOTAHROK

Elkar gaitezen, kanta, ospa eta dasta dezagun eta har ditzagun indarrak

Aurten ere, boluntarioen ahalegin nekaezinari esker itzuliko dira gure auzoko jaiak, programazio hau aurrera eramateko aukera ematen digun diru kopurua biltzeko Aste Nagusiko sukaldean lan egiten dutenei esker, jaietatik haratago auzoari bizia ematen dioten taberna eta saltokiei esker. Hori guztia gabe, gureak bezalako jaiak ez lirateke posible izango.

Azkenean iritsi diren jai hauetan, goza dezagun errespetuz, guztiok aske sentituz eta sentiaraziz. Eraso matxista, arrazista eta homofoboek ez dute lekurik gure kaleetan.

Bederatzi eguneko gozamena iristear da, adin eta gustu guztietarako



ANDREA VADILLO
Zorrotzako Jai Batzordea

“Bederatzi eguneko gozamena iristear da, adin eta gustu guztietarako pentsaturiko jarduerak. Une ezin hobe elkar ezagutzeko, elkartzeko...”

pentsaturiko jarduerak. Une ezin hobe elkar ezagutzeko, elkartzeko eta urteetan aldarrikatutako aldaketen alde borrokatzen jarraitzeko, guztiontzako auzo hobe baten alde.

Beraz, elkar gaitezen, kanta, ospa eta dasta dezagun eta, batez ere, har ditzagun indarrak inguratzen gaituen errealitateari aurre egiteko, uko egin ezin diogun errealitate honi. Pribilegiozko bederatzi egun hauek ez diezagutela enpatia lausotu, jarrai dezagun Palestinaz hitz egiten, milaka errugaberen genozidioa eta gosetea salatzen. Gora Zorrotzako Jaiak! Gora TxinboMikel! Gora Palestina askea! Israeli boikot!

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua zm@zorrotzmorrotz.eus helbide elektronikora gaiaren laukian “iritzia” jarrita. Eskerrik asko!



ESKAINITZA PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA + KRISTALAK GOI-GAMAKOAK
265€
Sutagapena indarrean +400 eduzko eta +250 pila eduzko artelko graduaziotorteei
BPG 213/18 **ibaretaluxury**

Matrikula zabalik 2024-2025 ikasturtea
The aKdmy
Ingeles eta eskolako laguntza
66601795
the_aKdmy
Zorrotza Kalekrisana erregileak, 7

LASTER
Elektrizitatea elektronika
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• ATEZAHIA AUTOMATIKOA
• ARGIZIAPENA
• SARE INFORMATIKOAK
TFNO.FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
ZORROTZA KASTREXANA
ERRER. 42. MOD. 58
ZORROTZA 48013

**Ander**

Oso ondo dago,
baina gune txarra
aukeratu dute, bertan
delikuentzia baitago..

**Iñaki**

Polita geratu da,
baina alboan dauden
enpresek sortzen duten
kutsadura kontuan
izan behar da. Erabili
ahal izateko, enpresa
horiek lekualdatu behar
dituzte. Sader-Profersa
Kanpora!

AIERT COBO
eta ENEKO GARCÍA

La Landa parkea

Zer deritzozu
parke berriari??

**Gorka**

Parkea sekulakoa
da, baina kokapena
desastre hutsa da
alboan duenagatik.

**Irene**

Parkea oso ondo
dagoela uste dut.
Oso polita geratu da,
eta berria da. Umeek
jolas ezberdin asko
dituzte jolasteko
bertan.

**Ekain**

Parke horren
kokapenak
aparkatzeko arazoa
handitu du eta,
gainera, alboan dituen
enpresak kutsagarriak
eta bizilagun guztietzat
oso kaltegarriak dira.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

bertso sajoa



**ZORROTZA^{ko}
jaiak 2025**

ZORROTZA. Irailak 28, *igandea*. Azoka Plazan. *12:00etan*



Amets Arzallus



Jone Uria



Saioa Alkaiza



Jon Maia

Antolatzaileak:



Laguntzailea:



Babeslea:





AURKITU ZURE
EUSKALTEGIA

A red line-art map of Bilbao, showing the city's layout and the Nervión river. Thirteen green dots are placed on the map, indicating the locations of various Euskalategia centers. A red arrow points from the QR code to the top-left dot.

EUSKARA NONAH MATRIKULATU ZAITEZ EUSKALTEGIETAN!

Udalak finantzatutakoa

bilbaeuskaraz.bilbao.eus



Bilbao